




# **INNOVA ENGINEERS** **BALIO PROPOSAMENA**

Gure ideia, euria egiten duenerako soluzio bat proposatzen du, eskoletan garatuko dena. Proposatzen dugu eskoletako sarreretan lehorgailu pasabide bat ezartzea, egun euritsuetan ikasleak pasatzerakoan lehortzeko. Energia berriztagarria erabiliko du funtzionatu dezan, gure kasuan eguzki energia. Eguzki energia eguzki panelen bidez lortuko dugu eta eskolak ordainduko dute.

Gure enpresak hainbat onura-multzo eskaintzen dizkie bezeroei, honetarako hainbat faktore hartzen dira kontuan, faktore hauek kontuan hartzen dira gure produktua erabiltzerako orduan.

Bezeroak gure enpresan konfiantza izateko **errendimendu ona** eskainiko diegu. Gure proiektua, errendimendu ona izan dadin, hainbat parametro kontu handiz landuko ditugu. Haien artean, enpresa "garden" bat lortzea, Gardentasunaren bidez, enpresak gizarteari nola jokatzen duen jakinarazten dio, kritika edo balio judizioetarako bidea irekiz.

Faktore oso garrantzitsua da produktuaren **kokapena**, hau da, bezero bakoitzarekin bilera bat egingo da, non berarekin adostuko dira produktua izatearen baldintzak, haien artean, kokapena, prezioa,...



Gaur egun, garrantzi asko duen gai bat kontuan hartuko dugu gure proiektua aurrera eramateko: aldaketa klimatikoa. Horretarako, **energia berriztagarriak** erabiliko ditugu. Energia berriztagarriak, naturako

baliabide agortezinak erabiltzen dituen energiak dira, hala nola biomasa, eguzki- edo haize- energia. Gure ustez puntu oso garrantzitsua da gure enpresarentzako, gure proiektuak energia asko gastatzen duelako eta jendea bizitza hobe bat izateko kontzientziazteko lehenengo pausua da.

Bukatzeko, **erosotasuna** izango dugu kontuan. Alde batetik, oso funtzionamendu arrunta duelako (nor bait pasatzerakoan pizten da eta ez du behar ikasleen aportaziorik diru kontuan) eta bestetik, hau erabili ondoren gure ustez bezeroak erosoago sentituko direlako.